



IRUZUR FISKALAREN KONTRAKO PLANA, 2016

2016ko emaitzak

Orobat, iruzur fiskalaren prebentzioan eta haren kontrako borrokan iaz hartutako neurrien balantzea egin du gobernuak. Kopuru handiei dagokienez, azpimarratu beharra dago **2.022.710 euro** berreskuratu zirela zenbait neurri esker: ikuskaritza, errolden konparazioa, itzultako ordainagirien jarraipena, etab.

Kopuru horren zatirik handiena (865.047 euro) gainbalioaren gaineko zergarekin lotutako ikuskapenei dagokie. Orobat, 290.111 euro berreskuratu ziren iaz ekonomi jardueren gaineko zerga berrikusteko abiarazi zen plan bereziari esker.

Hona hemen zergadunentzako zerbitzuak hobetzearekin lotutako beste kopuru adierazgarri batzuk: 187.608 gutun bidali ziren, 2016ko OHZri buruzko informazio praktikoa emateko; ibilgailuen zergaren 2.553 zerga-helbide eguneratu ziren, eta Zergak Ikuskatzeko Planetik 1.148 dossier eratorri ziren.